

Notre espace d'expression étant limité, la version française est consultable sur : www.ahetzen.com

Zertan gira euskararekin Ahetzen ?

Nahiz eta euskararen egoera iluna izan, argi da gure hautetsiek ez dutela behar dena egiten, euskara ez baita haien lehentasunetan sartzen. Etsenplu batzuk aipa ditzagun :

Oraindik 5 urte gutienik haurtzaindegian parekotasunezko harrera elebiduna ukaiteko

2014ko abenduan, Herriko Kontseiluak euskara ikasteko formakuntza plan bat onartu zuen haurtzaindegiko langileentzat, Baionako CAFk, Pirinio-Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluak, Hego Akitaniako MSAk eta Euskararen Erakunde Publikoak ematen duten labelari loturik. Orotara 5 urte beharko dira langile horiek euskara ikasteko. Ororen buru, 2010ean haurtzaindegia sortu zenetik, 10 urte galdu dira etxe honetan euskara sararazteko.

Eskola publikoan euskarazko orenen emendatzeko gogoeta

Iduriz irakasle taldeak euskarari leku handiagoa eman nahi dio. Hortakotz, ama eskolako ikasle elebidunentzat osoki euskaraz ikastea proposatu nahi dute. Paraleloki Herriko Etxeko talde batek proiektua segitzen du. Ea erdietsiko duten martxan ezartzera?

Bi adibide horiek sinetsarazten ahal badigute euskara indartzeko nahikundea badela, bertze kasu aipagarriak badira kontrakoa erakusteko.

Herriko Etxeak ahantziak dituen Ahetzeko Ikastolako haurrak

Bidarten den Uhabia ikastolak Arbonako, Getariako, Bidarteko eta Ahetzeko haurrak errezibitzen ditu murgiltze eredia proposatuz (euskara=irakaskuntza eta komunikazio hizkuntza).

Azken hilabete hauetan ikastolen etorkizuna lanjerean ezarri dute Prefetaren erabakiek, Hendaiako eta Ziburuko ikastolak oraindik gogoan ditugu. Ahetzeko Herriko Etxeak Prefetaren bide bera segitu nahi ote du, legeak herriko etxeak eskola pribatuen diruztatzera behartzen ez dituela estakuruarekin? Hala ematen du : Getaria, Bidarte eta Arbonako Herriko Etxeek hastapenetik Uhabia ikastola diruz laguntzen dutelarik, Mattin Trekuren herriak erabaki du euskaraz ikasi eta bizi nahi duten haurrek ez dutela diru laguntzarik merezi. Zer bertsu botako luke Mattinek horri buruz?

Herriko Etxean euskararik ez

Harrera euskaldunik ez, frantsesez bakarrik! Herriko Webgunea osoki frantsesez ere (alta ikurrina badago frantses eta espainol banderen ondoan, baina lotura gainean klikatuz, deus ez!). Ahetzeko berriak aldizkarian, sar-hitza baizik ez euskaraz, ohidurak manatzen duen bezala.

Alta Hego Lapurdi Hiriguneak herriko etxeak laguntzen ditu

Gaur egun, Hiriguneak du hizkuntza eskumena. Horregatik, euskararen erabilpenaren garatzeko, euskararen ikasteko formakuntzak eta itzulpen-zerbitzua proposatzen dizkie herriko etxeei. Zergatik beraz Ahetze ez da laguntza hortaz baliatzen? Zinezko borondaterik ez ote euskararen erabilpena bultzatzeko ?

Euskararen geroa segurta dezagun!

Lan anitz bada oraindik euskara putzu ilunetik ateratzeko eta itsas zabal izateko. Guk, AHETZEN taldekoak, gaia hurbiletik segituko dugu gure hizkuntzari etorkizun hobea emateko, euskarari zor diogun geroa segurtatzeko!